

DIRU-ITURRIAK

Gure aplikazioa dohainik izango da. Baina guk zerbait eta etekin batzuk lortzeko, bertsio Premium bat sortuko dugu, zerbitzu eta erraztasun gehiago dituen. Ondorioz, bezeroek edo aplikazioa nahi dutenek, aukera dezakete bertsio hori erostea edo ez, 0,95€ ordainuz hilabetero. Nahiko merkea da, denontzako eskuragarria izateko eta bakarrik dirudunek ez erabiltzeko, baizik eta jende guztiak. Egia da diru kantitate hori ez dela oso handia, baina erabiltzaile guztiak laguntzen badute, azkenean nahiko dirua lortuko dugu. Gainera, zenbat eta erabiltzaile gehiago erabili gure aplikazioa, gero eta ospetsuagoa eta famatuagoa izango da gizartean.

Ospea lortzeko, publizitatea erabili dezakegu. Leku konkretu eta estrategikoetan jarriz kartel handiak, jende asko pasatzen den lekuetatik, eragin gehiago eta eraginkorragoa izateko. Beste aldetik, bezeroekin harreman hobea eta hurbilagoa izateko, deskontuak eta oparitxoak egingo ditugu data esanguratsuetan eta berezietan, hala nola Black Friday, gabonak edo zure urtebetetzea. Ondorioz, gure prezioak dinamikoak izango dira, hau da, ez dira finkoak izango. Urtearen hilabetearen eta momentuaren arabera, prezioak alda daitezke. Ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira.